



URKIOLAKO SANTUTEGIA

Bariku guztietan lez, gaur ere Urkiolan mixio batzarra izan dogu.

Dakizuen lez, Urkiolako Santutegia euskal mixiolarien ardurapean dago.

Urkiolan gordeten dogu mixioen artxiboa, emen astero alkartzen gara, bai mixiolari, bai iru Elizbarrutietako arduradunak. Bizkaitar, Gipuzkoar ete Arabatar guztiok Urkiolako tontorrean bat egiten dogu.

Gure gaurko gaia, Jose Deunaren, edo euskal mixiñoen eguna, gertatzeko izan da. 38 urte daroetz euskal mixiñoak, eta Jose Deunaren jaiagaz loturik egon izan dira beti.

Baiña aurten Erri agintarien aginduz, Jose Deunaren eguna asteguna izango da, naiz-ta Elizak jai lez jarraitu. Ori dala-ta, aurreko domekan ospatuko dogu aurten, naiz-ta Jose Deuna kontuan eta goioan izan.

* * *

Aurtengo gure mixio eguneko elburua au izango da: "Bakea lortzeko, ogia obeto banandu".

Aurten ospatzen da mundu guztian bakearen urtea. Baiña bake lortzeko bidea, zuzentasun ete justizi eragiñak betetea da.

Orantsu gizon batek esan eustan: "Gugaitik zer esango ete dabe emendik eun urtera? Egunkari, liburu, itzaldi ete milla lekutan, justizi berbea aitatzen da. Esan leiteke justizi muga ete egarri guztiak lortu doguzala. Bakeari buruz be, ainbat gauza esaten dira. Bestealde, gerra, gogorkeri, izugarritzko dezbardintasun ete goseteak dira gure munduan nagusi. Txiroak, baztertuak ete menperatuak ainbat dira ete nun nai aurkitzen dira".

* * *

Arrazoi aundia dauka gizon onek. Gure miñera eldu dira berba garrantzitsu onek, baiña ez dira jatsi gure biotzetara...

Orregaitik, aurtengo gure euskal mixio egunerako gai ori aukeratu dogu. Bakea bai, baiña justiziaren eskutik.

Orantsu ospatu dogu Urkiolan San Anton zaarraren jai. Negu gorrian dan ezker, jente gitxi etorten da bederatzi-urrenera. Etxean ete etxeokak bakarrik, egin dogu. Bere bizitzaten zati batzuk irakurri doguz geure eguneroko otoitza oiñarrituteko. Irugarren egunean au irakurri genduan:

San Anton ogeita bi urtegaz umezurtz genditu ei zan. Bere aitak, ilzorian egoala, deitu ete esan euston: "Seme maite, ni zerura noa. Ondasun guztien oiñordeko ete jabe

izten zaitut. Baiña jakin egizu, ondasunak ez dirala zureak bakarrik ete zuretzat bakarrik".

Aita il ondoren, mutil gazteak erabagi sakon bat artu eban. Bere ondasunak bertsuen artean banandu ebazan, ete biotzeko askatasun ete poztasuna lortu ebazan. Bere burua aske ete pozik ikusirik, beste pauso bat emon eban, Jainkoaren billa basamortura joan zan.

* * *

San Antonen aitak ondo ekian ondasunen eginbearra. Eta gure Santuak ondo bete eban bere aitaren erakutsia. Bide ete jokabide orretan aurkitu eban bere barruko askatasun ete poztasuna. Besteari bere ondasunak bananduz, Jainkoagaz bat egiteko gerta zan. Jainkoa, lagun urkoaren bitartez ezagutu ete onartu aal izan eban. Bakea egin ete bakea lortu eban.

Aita Santuak esan euskun lez, bake egille izateko, bakean bizi bear dogu. Eta ezin dogu bakerik izan, besteen lepotik bizi bagara, edo besteak menperatuz ondasunak lortzen badoguz ete gareana ete daukaguna besteakin ez badogu erabiltzen.

"Bakea lortzeko, ogia obeto banandu", au da gure Jose Deunaren inguran erabiliko dogun gaia, geure euskal mixioak kontuak izanik.

* * *

Ogia aitatzen dogunean, ez dau nai esan bakarrik gure janari dan ogia, zerbait geiago esan nai dau: Geu garana ete daukaguna besteakin, batez ere beartsuekin erabiltea. Modu askotako ogia eskatzen da ba. Bakoitzak ikusi bear ko dau, zer egin edo eskiñi aal dauan besteen alde, besteak geu bestean bizi daitezcan...

Gure Iru Elizbarrutiak zerbait egin dabe mixio lurraldeetan, bai Ameriketean ete bai Afrikan. Gure eliztarrak euren limosnakin lagundu dabe, gure abade askok ete erlijioso/sa askok mixio orretan parte artu izan dabe. Gure erriko gazte askok euren osasuna ete gaztetasuna lan orretarako eskiñi dabe. Beste askok, emen aal izan daben guztia egin dabe. Baiña uste dot, oraindiño geuk "sobre" daukaguna eskiñi dogula, ez dogu benetako banaketa bat egin, ez dogu geure biotza besteari eskiñi, ez dogu sakonean beartsuakin bat egin.

Gure aurtengo gai au, ez da bakarrik mixio-arazoak beteteko, gure erri edo gure arterako be balio dau... Emen be OGIA OBETO BANATZEN ikasi bear dogu.

Gure Euskal Mixiñoen eguna ospatzeak, geure buru biotzak zabaltzen lagundu daiskula, baita esku zabalak izaten. Urkiolatik biotzez.

JOSEBA I. LEGARZA